

LAB

ENSEÑANZA

DOKUMENTAZIO
ZENTROA
1971-1919



ESKOLA
EUSKAL-
BUNA ETA
PUBLIKOA

LAB ETA IRAKASKUNTZAKO LANGILEEN SEKTOREA

Irakaskuntzaren prolematika ezinbesteko gaia dela bai eguneko baita etorkizunerako ENAMrentzat jakinik. KASen bloketik irakaskuntzaren sektorea bere zentzu zabalean hartzea erabaki da. Horregatik "irakaskuntzako langileen sektorea" izena aukeratu dugu. Honela, sektoreko langileen burgesi zatiketa guduizatzen saiatzen da, "irakasle" "ez irakasle" engandik (garbiketa, administrazioa...) bereizten.

Arazoaren oinarria honetan datza, irakaskuntzaren sektorea hartzea erabaki badugu gure askatasunerako proiektu orokorrean ezinbestekoa dela ulertzen dugulako da, irakaskuntza elementu garrantzitsutzat asumituz prosezurako militante jarretatik Blokeak markatutako pausoen barnean. Hau horrela da, Historiaren ibiltzea herri osoarentzat hiru zutabetan eusten delako: inguru politikoa, ekonomikoa eta kulturala, hirurak erlazionaturik eta horregatik, interdependienteak. Bestalde, bakoitzean premiazoago eta beharrezkoagoa da Euskal Herriarentzat euskal berreraikitze nazionala hastea. Lehenengo frankismoak eta erreformak gero gure ekonomia egoera hondagarrian utzi digute eta gure kultura horren degradatua euskara desagertzeko kinkan jartzeko moduan, gure Subiranotasuna errekonozitu gabe eta inguru politikoko egokia ezeztatzen duten bitartean euskaldunak beren arazoak konpon ditzaten.

ENAMrentzat erreibindikazioetako bat, kontsekuentziaz, gure hizkuntza eta kulturaren defentsa irakaskuntzako sistema askatzaile baten barruan izan da eta da. Horrela, behar hauen ondorioz erakunde herrikoiak sortu dira (ikastolak, AEK, EHE, EKB, UEU...). Erakunde guzti hauek Euskal Herriaren errekonozituz kulturaren oinarritzeko tresnak osatzen dituzte. Bestalde, jokaera arloak agertzen ari diren ondik gure herri espezifikotasuna erreibindikatu daiteken: Euskal Herriko Unibertsitatea.??

IKASTOLA ETA ESKOLA TRANSFERITUETATIK EUSKAL ESKOLA PUBLIKORA

Gaur egun, bai ikastolak bai eskola transferituak beren prolematika dute. Lehenengoen status juridiko bat izateari jarraikiz eskola euskaldun bezala aportazio berezia errekonozitu eta garantizatu dezan. Transferituek beren euskaldunizazioagatik borrokatzen dute. Errealitatea, bi prolematikak Administrazio zentrala eta Autonomikoak itota eta isildurik ditzutela da. Eztabaida honetan zer ikusi asko dute PSOE eta PNVk eta bi partidu hauek ez du apostu egiten eskola publiko eta euskaldun baten alde, sektore herrikoiak exigitzen duten bezala.

Historikoki zentralismoak helburu garbi bat izan du Euskadirentzat: bere deskulturalizazioa eta espainolizazioa. Eta lan honetan, historikoki ere, PSOE saiatu da. Helburu hau defendatzeko bide bat, bertakoak eta inmigranteak aurka jartzea izan da: Euskadi bi komunitatetan erdibitzea. Irakaskuntzaren arloan bereziki garbi nabarmentzen da saiaketa deliktuzko hau ("guk eskolan euskara ikasi nahi duten euskaldunek errespetatzen ditugu, baina erdaldunek erdaraz ikasi behar dute", "elebitasuna eskola publikoetan porrota da"). Estrategia garbia da: eskola transferituen euskaldunizazioa okidin honela hauei hau zatitu nahi den bi komunitateko batentzat tresna baliotsu bezala mantenduz.

Bestalde, PNV ez dago kulpaz salbu, aitzitik.

Lehenengo, Baskongadetako irakaskuntzaren administradore teorikoa da. Teorikoa diogu bere sistema edukatibo bat sortzeko kompetentziarik ez duelako. Gainera burgesiaren nahien defentsore on bezala, irakaskuntza pribatuaren modelua defendatzen du eta ikastolen kontrola nahi du erdipribatu bilakatuz eta irakaskuntza transferituetatik diferentziatuz.

Ez da alderatzeko "Pacto de Legislatura"n Euskal Herria erdibitu nahi den komunitate bakoitzarentzat bere eskola izan dezaten oinarriak markatuta egotea. Euskal berreraiketa nazionalaren proiektu politika orokor bat, ENAMek bakarrik asumitua, erreibindikazio herrikoiak euskal eskola publiko bakar batetara orientatzen direnak nahi eta nahi ez bereak egin behar ditu eta PSOE eta PNVk bultzatutako proiektu zatitzaileak atzera bota.

EREMU POLITIKO BATEN BEHARRA

Euskal berreraiketa nazionalaren gaia arrazionaltasun politiko minimo batekin oldartzen den gustietan, bai optika ekonomikoa eta kulturaletik, soluzio sinple eta bakarra sortzen da: edo Hego Euskadin marko instituzional baliadun bat lortzen da edo irtenbide gabeko kale batetan sartzen gara. Bai Gernikako Estatutuak baita Nafarroako Amejoramentuak arlo ekonomikoa eta kulturalean ez dute kompetentziarik eta hori logikoa da Konstituzio espainiarretik sortzen dira, antieuskaldunizatzat karakterizatuta. Sentidu honetan, gaur egungo arlo instituzionalak lege zentralista batzuk bakarrik posibilitatzen ditu (Ley urgente de Reforma de la Función Pública, LODE, Consejos Escolares, Concierptos Escolares, matriculación...) Alta Inspektzioarekin (supergobernadores del Estado en la enseñanza), bilbapen guzti honek ez du LOAPA aplikatzea besterik egiten, bere garaian horren kritikatu.

Euskaldunizazio osoaren proiektua, haur-eskoletatik pasatuz (gaiki deitutako haurtzaindegia) Euskal Eskola Nazionala eta euskaldunetz pasatuz eta benetazko Euskal Herriko Unibertsitatean amaituz.

Horretarako botere politiko eta ekonomikoa behar da proiektu behartua aurrera eramateko. Eta botere politiko honek instituzio arloan aldaketa bat exigitzen du, gaurko zirkunstanziaz ikusirik, soluzio politikoen fruitua bakarrik izan daiteke. Gure borrokararen trasfondoak desagertzea ukatzen duen Euskal Herriaren ukatzean oinarritzen da. Berehalako konklusioa, oxigenoa behar dugun bezala euskara ez hiltzea behar dugula da. Soluzio politiko hauek herri honetako alternatiba baliadun bakarraren negoziatuz pasatzen dira: KAS Alternatiba.

SEKTOREKO LANGILEEN EGOERA GAUR EGUN

Irakaskuntza arloan, 40.000 gizon eta emakume baino gehiagok lan egiten dute gaur bere sektore eta maila desberdinetan. Irakaskuntzako subsektoreko ohar printzipal ezaugarriak dira:

- Industri arloko rekonbertsio basatien aurrean, irakaskuntzako subsektoreak lan postuak mantendu ditu, nahiz eta, hori bai, soldatzen jabetzaren kapazitatearen laburtze graduala eta jarraitua jasan.
- Langile gehienak lege anti-langile batzuk izan dituzten bitartean, baina Sindikatu Ordezkariek aukeratzeko ubide batzuk posibilitatu dituztenak, bai negoziazio kolektiboarentzat baita klase klase interesen defentsa orokorrerako ere (ubide antidemokratikoak, indarrien dagoen LOLS-en proba), irakaskuntza publiko edo transferituan ez dago eskubide sindikal fundamentualen berririk.
- Atzerapen ideologiko gogorra jasan duen subsektore bat da. Alde batetik, guzti hori, pseudo-demokrazi transizioan azaldutako frustrazioengatik izan da. Euskal eskola publikoarentzat irtenbide eraginkor eta errealek ikusten ez denekin batera, eskubide sindikalen hutsunea dago; subsektorea desarme ideologiko batekin dago sektoriaiismora joan arazten bait du (problematika orokorra kontutan ez edukitzea) eta bakarkako soluzioen bilakerara ere.
- Irakaskuntza une honetan euskal marko autonomiko eta, ia osorik, Estatu zentralistaren kontrol pearen bitartean aurkitzen da. Gainera, behin baino gehiagotan, noren kompetentziakoak diren edo noren pean dauden jakin gabe. Egoera hau oso larria da berreraikitze kultural efektibo baten optikatik.
- Ezagai —eta askotan indargabe— irakaskuntza euskararen aldeko erreibindikazio herrikoiak asumitzeko. Dana esan behar da, transferentzietan bada euskara lan postuaren jarraipena baieztatzeko bide bezala erabiltzen duen zati handi bat eta ez gure herriaren superbibentziaren zutabe bezala hartzen dutenak. Halaber, exigentzi gutxi nabarmentzen da administrazioekiko birziklaketa edo rekonbertsio kulturala lortzeko bide minimoez dotatzeko.

Irakaskuntza pribatuaren mundua patronalaren jarrera kazikil —salbuespenak salbu— eta langile ahul eta erreibindikazioak plantaiatzeko, gutxienekoak era, beldurrez karakterizatzen da, lanposturik gabe geratzeko ikaraz.

Ikastoletan ez dago aurkitzen diren egiazko indefinizio egoerari alternatibak planteatzeko kapazitatearik (erdipubliko karakterrak, erdipribatuak...). Okerrena, oraindik, premiazko erantzuna behar duen galdera planteiatu duten irakasle gutxi dagoela dirudiela da. Nolakoa izango da heuren etorkizuna langile bezala?

Inguru ilun honetan, legeak eta lege proiektuek bai Administrazio zantzaletik edo aginpidetatik datozenak erreflexio serio bat mere zuen egoera eragingo dutela:

- Irakaskuntzan lan egiten duten jerarkizazio handiago bat kolektibo bakoitzean. Kolektibo bakoitzaren barnean eta kolektibo eta kolektiboen aurkakoa da, askatasun prozesuaren etsairik handiena, irtenbide bakarrekako soluzioak onartzea joxten delako eta askatasun nazionalaren proiektuaren alde funtzeskoena ahazten delako, indibidualtasuna gaitzitea alkartasunaren alde.
- Bigarren kategoriko eskubide sindikalak beste langileri buruz. Burgesiaren optikatik begiratzen bada ez du proiektu logiko bat izatez usten, euskal langileen zatiketa lortzera laguntzen du eta. Honela, irakasleek errepresentazio lotsagarria izango dute; heuren lana komentatzea, aholkatzea... eta protestatzea... baina gutxi izango da.
- Eta oso garbi dagoena hondo publikoen aldaketa batetara joango garela (aspaldi hasia) irakaskuntza pribatuaren alde eta Euskal Eskola Publikoaren galerarako.

Baliogabeko marko instituzionala eskaintzen digun Erreforma prozesuak, gure hizkuntzarekiko eta kulturarekiko ezetza PSOEn aldetik. PNVren jarrera folklorikoa, EEren pasibitate testimonialak, irakaskuntzako gure modelo bat eratzekeko posibilitateak ematen dizkiguten gai guzti handiak Madriletik osoki mugaturik eta zikiraturik etortzea (eragin dute) kultur problematika burutzeko (LODE, Estatuto de la Función Pública, Estatuto del Profesorado...).

Adibide triste bat gaur egungo Eusko Jaurlaritzaren jokabidea dugu.

Ez du egin, ez du egiten, ez du egingo —horren beldur gara— inolako ahaleginik gaurko egoera ukatzeko. Bereziki, halako gobernuak —era batetara deitzeagatik— “negoziazio” mahai bat muntatu du sindikato “maioritario”ekin ELA, UGT, eta CCOO irakaskuntzan gutxi batzuk ordezkatzen dituztenak. negoziatzeko... ikusketa medikuak, ezzedentziak, jangelak...!

Espektro sindikal osoan, era batetara edo bestera irakaskuntzaren eremua harrapatzen dutenak, ez da zezena adarretatik harrapatzeko arrastorik. UGT sindikatoak, PSOEn politika antieuskaldunaren jarraitzaile fidela, ez du sekula euskal problema kulturala sakontasunean hartuko eta nazionalismo espainiar erreakzionariora zuzenduko du. CCOO, Estatuko sindikato ezaugarriagatik, ez du balio ere. ELAren antzera, zeinaren sindikato akzio linea nagusiak euskal burgesiari eta honen interesen funtzioan zuzendurik daude, heziketa eta honen barne euskara bigarren planuko gaia delarik, testimoniala osoki.

Eta ez digu balio kontu puntualengatik mobilizatzea. Gaur egun aurkitzen garen fasean, martxan dagoen eta atzera ezin Askatasun Nazionalaren prozesuan, irakaskuntzaren arazoa, ente guztietan, kontsekuentzi guztiekin berari gehitu behar zaio. Hots, sektorearen problematika berezia kontutan izanik gure herriaren problematika orokorrari batu dadin eta berarengandik askatasunaren borrokak duen aberasgarria jaso dezan. Uste dugu hau dela benetazko era fruitudun burruka potentziatzeko eta beste alorretan eramaten dena eta iraunkorki zabaltzen dituen askatasunaren hegoak, aldaketa sozialarena eta Euskal Herri osoan solidaritatea.

ZER DA LAB?

Uste dugu oso garrantzitsua dela zuek nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakitea. Honi buruz, ondorengo esposizioa garatu dugu, eta gure ustez bi ikuspuntutik ikusi behar da: Gure erakundearen garapen historikoa eta bere presupositu politiko-antolatzaileak. Horiek asumira gabe ez dugu positibotzat jotzen Sindikatoan integratzea. Alderantziz, horiek sortuko lituzkeen kontradizioek negatiboki afektatuko lukete guztiongan, eta batez ere (eta hau barkaezina) ANEMean.

LABen sorrera, garapena eta gaurreguneko egitura ANEMen barnean bakarrik azter daitezke, ANEMen bezala, LABen gure prozesuak sortutako kontraesanak konpondu behar izan ditugu, estatu eta euskal markoren arteko enfrentamenduen fruitua, eta hain zuzen kontraesanik nagusia izan dena Euskal Herriak bere jabetasuna lortzeko bide luzean.

Langilegoaren interesen defentsa. Diktadurapean, askatasun demokratikoez eta klase borrokak markatu zuten batez ere. Nazio arazoa lurpean zetzan, baina ez zuen agertzen, errepresioa alde batetik eta PNVren inoperantzia bestetik zirela medio.

ETA izan zen V Asanbladatik honuntza batez ere - era koherente eta zientifiko batetaz Euskal Askatasunaren prozesuari marxismora lotzea lortu ahal izan duena, dogmatismoei alde eginez (desbideratze eta eszizioen iturria den dogmatismoa).

Eztabaida primitibo, baina oinarriko, haietatik ondorio ukaezin batetara heldu zen. Askapen nazionalaren borrokak —gure prozesuaren motorrak— Askapen soziala onartu behar zuela, nahita nahi ez. Beste hitzetan, ANEMen Askapen Nazionala oso garbi bereizten da beste kontzeptuetatik: burgesen alde batetik, eta ezkerreko zenbait talde estatalekin egiten

duten interpretazio maltzurra bestetik. ANEMarentzat Nazio jabetasunak gauza batzu inplikatzeko dituzten jabetasuna bera, esplotazioa desagertzea, gure kultura eta hizkuntzari lehentasuna ematea... Ezin da Nazio jabetasunik izan baldintza guzti horiek ez badira betetzen.

ETA frontearen egituraz jabetu zenean, arazo Sozialak teoria hutsa izateari utzi zion, eta praktikara pasa zen Langile frontearen bidez, Bizkaian (1967an), Gipuzkoan (1968an).

Bitartean, sindikalismo konbentzionalak (CCOOK batez ere) askapen demokratikoetan eta kapitalismoaren kontrako borrokan zentratzen zuten ekintza. ETAK, Langile Frontearen bidez, nazio errebindikazioak sartzen ditu langileen borrokan.

Esperientziak laister utziko zuen agerian Frenteen egitura ez zela nahikoa errepresioa frenatzeko, eta era batean edo bestean ideia bat sortzen da: Borroka Harmatua bereiztu behar dela Politiko, Sindikal eta Herrikoietik e.a., batez ere Mili eta Poli-Milien eszisia eman zuen Asanbladetik honuntza. Diktadorearen desagerketa fisikoa eta fase politiko berri baten-tzat prestatu beharra zegoen, Erreformarentzat alegia.

LAB 1974ean jaio zen, eta KASen partaidea 1975etik, koordinadora jaio zenetik izan da.

LABen barnean, partaideen ideologiak oso desberdinak ziren, eta honek kontradizio lojikoak sortuko zituen geroko eboluzioa markatuko zutenak. Erreformaren alde daudenak LAB KASetik ateratzea lortzen dute.

Hau gertatzen den bitartean KAS - bloke agintariaren kontzepzioak eztabaidatzen ari da, Miliek 1974.eko AGIRIAN markatutako lineaz. Gakoa da KASek sigla batuketa eta lehentasun akordio markoa izateari uztea barruko erakunde guztiak hertsiki lotuko dituzten erabakiak hartuko dituen bloke bihurtzeko. Bestalde, erakunde bakoitzak bere borroka mantendu-ko du bestearekin koordinatuz, baina bere independentzia organikoa izanez. 1980. urtean LABen barnean borroka doble bat ematen da. Lehendabizi ETAKo militanteak, LABetik ELARa pasatu nahi dutenak, sindikatutik ateratzen dira puskatzea lortu gabe, bere asmoa zen bezala.

Bestalde, Ormaiztegi Kongresuan LAB KASen birsartzea erabakitzen da. Sindikatuaren barnean alderdi kritikoa indartsu bat geratuz. Ordutik borroka ideologikoa eta gure prozesuaren bilakaerak gure arteko gorabeherak gutxitu dituzte. KAS-Bloke txostenak ondorengo moduan definitzen du gure Sindikatuak: "LAB egituratzen da KASen Erakunde iraultzaile bezala Langileriaren Mugimendu-ako".

LABeko egituraz, zeinek arazo taktikoengatik Sindikatu itxura hartzen duen, bere barnean kuadro eta masetako ezaugarri bikoitza biltzen du. L. Maren barnean burutze, antolaketa eta integrazio lanak egiteko, zatikatze aktibitate eta alderdikeriei aukerarik eman gabe.

Bikoiztasun hau egitura organiko bezala ez du izan behar, inoiz ere, Blokearen izenean ordezkaturako lanerako eragozpen bat, Biltzarrea, botere kontrakoa eta langileen protagonismoa Askatasun Nazional eta Sozial prozesuan bultzatuz.

LABen definitze-egiturazetik ondorengo ondorioak ateratzen dira.

1. LAB Sindikatu KAS Blokeko partaide bezala aintzakotzat hartu eta defendatzen ditu honen helburu taktiko-estrategi-koak, zein lehenengoak oinarritzen diren Aukera taktikoaren bost puntuetan eta Euskadi euskaldun, birbateratua, independente eta sozialista bat nahi duen estrategian. LABek ere, KAS Blokeko Erakunde bezala, aintzakotzat hartzen ditu herri honek hartutako borrokarako era guztiak, erabat legitimoki egitura gogor-errepresiboaren aurrean, zein Estatuak eraiki du NAM (MVLN)en kontra. Eta ez bakarrik borrokarako era guztiak aintzakotzat hartu, baita ere aintzakotzat hartzen du haren koordinaketa dela NAM (MVLN)en ahaleginak ugaritzeko modurik egokiena.

2. NAM (MVLN) ek gaurko egunean jasaten duen fasea dela eta, egokitzen hartzen da LABek Sindikatu itxura hartzea. Bestalde, LABen legaltasun goerak eskaintzen du Blokearen barnean legaltasun burgesaren zenbait "abantaila" erabiltzea NAM (MVLN)ek dituen helburuen alde.

3. LABek kuadro eta masetako (afiliatuak) ezaugarri bikoitza du. Ezaugarri hau den Blokeko Erakunde bakarra da, eta arazoia da LABek lantzen duen arlo espezifiko langileen multzoa dela eta bertan nazio eta Klasetako Kontzientzi maila oso ezberdina da, Konpromisozko duen mailak goratzea eta hortarako kuadro kopuru hazkorrak edukitzea. Udak KASA definiturik, baita ere "JARRAI, ASK, HASI eta LABeko militante Biltzarre" a, zentzuzkoa da Sindikatuko afiliatuak besterik ez direnak udal KASera ezin joan ahal izatea.

4. Blokeko beste gaintzerako Erakundeak bezala, LABek ez du ametituko Sindikatuko osotasunaren kontrako zatikatze aktibitateak, ez eta Blokeko batasunaren kontrako alderdikeri eratzailak. Hau dela eta, ezin dira partaide izan NAM ez den beste erakundeko partaideak direnak.

5. LABek L.M. (MO) lan egiteko baimena du NAMEk dituen helburuen arabera, langileen protagonismoa defendatuz. Biltzarrea eta Enpresako batzordea bultzatuz, langileen aurrean egiten ez diren paktuei uko eginez. Joera hau dela eta, LABek lanpostuen eusteari ekingo dio, langileen bizitzaren hobekuntzari, alokairuen berdintasunari, gure hizkuntz eta kulturaren zabalkundeari.

GURE EGINBEHARRA LAB BEZALA ETA BERTAN

NAMen inguruan gauden irakasleok ez dugu inolako lanik egiten sindikal mailan, borroka eta interbentzio sozio-politiko lanik ez dugu garatzen irakaskuntzako langileen artean eta orokorrean langileriaren barnean.

Egoera honen arabera, zeinek azken urte hauetan irauor duen, jendeak bere kasa egin du lan eta ez nahiko zentruetan eta biletetan, deskordinaturik; gehienetan joera zuzen batean kokatzen bazen ere, ez zegokion erreflesio kolektibo bati, zentzu jakin batean jokatzeko hitzarmenik ez zegoen, hau da, ez da elkartuta jokatu. Premiazkoa dugu Errenteriko Sindikal Jardunaldietan izandako hasierako gogo birartzea, gaurko egunera egokituz: alde batetik ekintza sindikalaren beharra bestalde elkartuta borrokatzea. Bi ardatz hauek: esplotazio sozial eta errepresio nazionalaren kontrako borroka sozio-politiko gogorra eta antolamendua izango dira eskainiko dugun lan apurra Nazional eta Sozial Askatasun prozesurako non gure herria murgilduta dagoen.

Hauek LABen oso ondorengo zehazten dira eta gaineraz beste arlotako langileekin elkarrekiko harremanetan daudenez geroz errazagoa izango zaigu jarrera korporatibistetan ez erortzea edo euskal langileen benetazko beharretatik ez urruntzea, eta bide batez irakaskuntzako arazoak eztabaidatzeko eta azaltzeko aukera izango dugu, eta azken batez, NAM barnean elkartuta gauden langileok koherentzatu ditzagun aukerak eta eman behar diren urratsak irakaskuntzan euskal hizkuntz eta kulturaren elementu ideologiko eta berreskuratzaila bezala.

LABen kokatzerakoan aurkitzen gara Sindikatu batekin zeinen ideologiarekin bat gatozen, arlo ezberdinetara heltzen den egitura batekin, baina irakaskuntzari dagokionez irakasleok sortu behar dugu egitura bat zein egoeraren azterketa posiblea bait diezagun irakaskuntza osatzen duen arlo ezberdinetan, gure jokaera sindikala LABen jokabide nagusiaren arabera finkatu eta lurraldeko egituraren parte hartu. Hau da hain zuzen gure desafia, gauza izatea ez bakarri printzipio batzuk teorikoki aintzakotzat hartzeko baita ere erakusteko militantei teorikoki zuzena dena praktikan jartzeko gai izango garela, NAMEk horrela eskatzen duelako.

**2. LAB ETA EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOA
EUSKARA IRAKASKUNTZA
GURE JARRERAK**

OKUMENTA
ZENTROA

[Handwritten signature]

LAB eta EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Azken urte hauetan irakaskintzaren munduan eguneroko erreibindikapena izan dugu euskal eskola publikoarena.

LABek beregan hartu behar du eskola euskaldun eta herritar hau bideratuko duen langile borrokaren gidaritza.

Bi errazoi nagusi ditu LABek helburu honen garapena bultzatzeko:

1.- Euskal Herriaren Naziotasuna. Herri libre bati dagokio nazio bezala itxuratuko duen sistema eta erakundeen jabetze propio.

Besteak beste herri baten izakera jasoko duen eskolak herri honen nortasuna sendotuko du. Euskal herriari bere eskola nazionala dagokio, Euskal Herrian eraikia, Euskal Herritik zuzendua, bere behar eta izakerara mugatua.

Eskola, Euskal Herriak daraman borrokari lotu behar zaio eta irakaskintzako langileok beste sektore guztietako langile abertzaleekin batera zeregin honetan murgildu behar dugu LABen.

2.- Bestetik, LABek, Klase Sindikatu izanik ezin du defendatu edozein eskola Euskal Herriarentzako. **Proiektu sozialista** batetik klase baten interesak defendatu behar ditu eskola horrenganako. Herri libre batetan pertsona libreak, herri horren zerbitzuan lan egingo duen eskola pluralista, demokratiko, euskalduna, diskriminaziorik gabe baina aldi berean egungo gure herriaren egoera zehatza, errealtateari begiak itxi gabe, neutralismo faltsuan erori gabe, ezagutzera emango duena.

Erreibindikatzen ari garen eskola mota honek, euskal eskola publikoaren markoan izan dezake toki, ez hemendik kanpo. Bukatzeko, helburu hau gauzatzea LABeko langileekin batera, askapen mugimendu osoaren zeregina bihurtuko zaigu.

EUSKARA, IRAKASKUNTZA ETA GURE JARRERAK

1. AZTERKETA ETA KRITIKA

1.1. Irakaskuntzarekiko jokaera politikoa

Irakaskuntza une larriak igarutzen ari da gaur egunean Baskongadetan eta Nafarroan.

Ikastolek, eskola euskaldun gisa egin duten aportazioa onartu eta garantizatuko lieken status juridikoa lortzearren borrokatzen dute. Transferituek berriz, kalitatezko irakaskuntza, gero eta euskaldunagoa e.a. Eta eskola biak bai PNV eta bai PSOE autonomikoengatik itoak eta isilduak dira, oinarrian sektore herritarrek bultzatzen duten eskol ereduaz oztopatuz. Arrazoi ezberdinengatik baina biak dira eskola euskaldun eta herritarren etsaiak.

PSOeren asmoa argo dago. Eskola zentralista eta espainola bultzatu. Eta une honetan, gure herrian, komunitate bikoitzaren sentimenduak txertatzeko erabili.

Bere estrategia honetan datza: Eskolen euskalduntzea galeraztea gure herriko ustezko bi komunitatetik batentzako tresnataz mantenduz. Honetarako bai bertakoak bai etorkinak integratuak eta euskaldunak sentiaraziko dituen eskola mota eraikitzeko ahaleginak galeraziko dituzte. Beste arlo guztietan bezala euskararen etsai amorratuak ditugu irakaskuntzan.

PNVri dagokionez bere jarreraren ardatz nagusia Euskal Nazioaren nortasuna berreskuratzeko proiektu ézan datza. Gaur egun ez du jokatzeko alderdi abertzale eta euskaltzale bezala.

Eskola transferituak kontrolatzen ahaleginak egiten ditu. Baina batetik, burgesiaren interesak zerbitzatzeko dituenek, eskola pribatuaren aukera debendatzen du eta bestetik estatuto erregionalak (Gernikako estatutoa eta Amejoramentua) administratzaile hutsak bihurtzen dituenek, bertan gustoko zaien eskola egiteko kompetentziarik ez dute. Egoera honen aurrean estrategia argi bat eskeintzen digute: Eskola pribatuak bultzatu, ikastolak ere pribatu egin kontzertuen bidez irakaskuntzaren dohaintasuna eskeiniz, eta eskolentzako bazterte eta zokoratze negargarriena.

Euskara beraiek ipinitako eskubide pertsonalen mailara ere ez da iristen. Ikastoletan kopuruen handitzearekin erdalduen euskalduntzea ere zalantzan jarri du, eta eskoletan euskal eredueterako dauden eskariak betetzera ere ez da iristen.

Bistakoa da beraz ez PNVEk ez PSOEk ez dutela Euskal Eskola Publikoa ahalbideratzeko asmorik eta hurbil ikusten da hezkuntza era bilduko duen elkarren arteko paktu bat, bien helburuak berdina ez izan arren osagarriak baitira.

Guk eskola euskalduna eta herritarra bultzatzen dugu. Eskola bat izan daiteke euskalduna eta ideologi pribatua duena. Baina abertzaleontzat, herri honetan, eskola bat ezin daiteke publiko kontsideratua izan euskalduna ez bada.

Gauza nabaria da benetako burujabetasuna lortu gabe ezin duela herri honek behar duen irakaskuntza sistema eskuratu. KAS alternatibaz jasotzen den bezala, subiranotasun maila jakin bat, Euskal Herriaren euskalduntzea, Euskal Herri langilearen funtsezko erreibindikapenen lorpena, geroko Euskal Herria eraikitzeko nahitazeko oinarriak dira.

1.2. Eredu linguistikoak

Ereduen gauzarik kaltegarriena eta euskararen etsairik amorratuena, sortzerakoan erabili den filosofia da. Askatasunaren eta demokraziaren izenean, umeen euskalduntze maila, gurasoen aukeratzeko eskubide pertsonalean oinarritzen da. Horrela berrito ere erdaldunek bere elebakartasuna inposatzeko eskubidea dute.

Ereduen helburu nagusia ez da euskalduntzea, askatasunaren izenean inor "mindu" gabe herri honen hizkuntza borroka ixileraztea baino.

Hauk dira ditugun ereduak (Baskongadetan)

Legeak dioenez A, B eta D. Legetik at B, D edo Btik Druntz.

A eredu: Euskara 3 ordu astean.

Azken urteotan euskararen ezarpenak izan duen bilakaera ikusirik, A ereduak eman dituen emaitzak oso urriak dira.

Irakasle euskaldunak, irakasle erdalduen eta antieuskaldunekin lan eginez, eskolan euskara "sartzea" lortzen du baina ezin du ia ezer euskaldundu.

A ereduak euskalduntzen ez duenez, barruko eta kanpoko antieuskaldun guztien alternatiba bihurtu da.

A ereduak PSOeren eskola espainola eta PNVren euskalduntzarekiko jarrera makala mantentzeko balio du. Horregatik da guretzat arbuigarri eta kaltegarria.

D eredu: Irakaskuntza osoa euskaraz. Ikasle euskaldunentzat eskualde erdalduenetan ikasle euskaldunen kopurua nahikoa ez bada ez da eratzten gela berririk. Erdaldunei bat egon arren bere "eskubidea" zihurtatzen zaie, euskaldunei ez.

Ikastolak pribatuak izateagatik istiluak sortarazten dituen ereduak: leku batzuetan ez dira D ereduko lineak zabaltzen ikastolan ba direlako, ume guztiei aukera pribatua inposatuz. Bietan dagoen lekuetan derrigorrezko kompetentzia sortzen

da, hain beharrezkoak ditugun indarrak, gaur egunean inposatzen ditugun ereduengatik, elkarren arteko liskarretan erretzen ditugularik.

B eredia: Denbora erdizka banatzen da euskara eta erdararentzako.

Gaiak, garrantzizkoenak erderaz (matematika, irakurketa, idazketa, e.a.) besteak euskaraz (plastika, dinamika,...) Elebitasuna teorikoa bakarrik da.

"B" eredian dabilzanak argi daukate goi ziloan, edo "D"runtz doala edo "A"runtz doala.

Eredu honek kriston frustrazioak sortu ditu, eta luzarora "A" ereduaren defendatzaileek erabiliko duten argudioa izango da.

B eredia aprobezagarrria izan daiteke, kontzientzi eskasa dutenen euskaranganako hurbiltze bat eskeintzeko, baldin eta leku gehiago eskeintzen ba zaio euskarari.

Btik-Druntz: Ume erdalduna izan arren, irakaskuntza euskalduna zihurtatzen duen eredia.

Ikastoletan ume erdaldunekin jarraituriko bidea eta baliabide egokiak ipini ezker, posiblea dela frogatu den eredia.

Eskoletan borrokatu eta lortu behar dugun eredia, hau baita ikasleak euskara ikastetik at, eskola euskaldun bihurtu dezakeen eredia (irakasle guztiak euskaldun).

Gure helburua: Abertzale bezala, Euskal Herri euskalduna lortu nahi badugu, gure helburua, ereduak eta beraiek sorturiko filosofia desagertzea da. Euskaldunentzat, irakaskuntza euskaraz. Eta erdaldunentzat, irakaskuntza euskaraz posiblea izan dadin, baliabide aproposak lortzea da gure helburua, pedagogi egoki batez lan egiteko.

Betirako erdararen nagusitasuna zihurtatzen duten pedagogikeriak ere uxatu beharra dauzkagu.

1.3 Irakaslegoa (Baskongadetan)

Euskara berreskuratzeko, tresna beharrezkotzat jo dugu irakaskuntza sistema euskaldun eta herritarra eskuratzea. Horretarako ezinbestekoa da irakasle eta langileak euskaldun izatea.

Gaur eguneko egoera:

- Eskola transferituetan: Irakasle eta langileen gehiengoa erdalduna da. 1983-84ko datuen arabera. 3.025 (%34,03) euskaldunak. 5.863 (%65,96) erdaldunak.

- Irakaskuntza pribatua gehiengoa erdalduna da.

- Ikastoletan, ia guztiak euskaldunak dira.

Oro har, unibertsital mailakoak ez diren sare guzuetako irakaslegoa 25.023 irakasle osatzen zuten 83-84 ikasturtean. horietatik 8.246 bakarrik zuten euskarazko titulua eta 16.777 zeuden euskaldun beharrezkoak.

Irakaskuntza pribatua, gaur eguneko egoera politikoan, demanda edo presio sozialaren arabera bakarrik euskaldunduko da.

Irakaskuntzako beste sektoreen euskalduntzea beharrezkoa izanik ere gaur egun dugun egin beharrik behinekoa eskole-tako irakaslegoa euskalduna bihurtzea da.

Kontutan hartu behar dugu irakasle lanak euskararen transmisore bezala duen garrantzia eta beraz irakasleari, euska-ron ondo menperatzea eta euskararen aldeko jarrera ere exijitu behar diogu.

Egungo 5.800 inguru irakasle erdaldunen artean badira euskaldun nahi dutenak, arduragatuak, eta euskararen etsai ugari ere.

Erdaldunek..., eurek jakingo dute zergatik ez dakiten euskara... baina ikasten ez duten bitartean, herri honek behar duen eskola euskalduna oztopatzen dute.

Nori interesatzen zaio egoera hau mantentzea?

- Euskal Herriaren etsaiei: Irakasle espanyolista eta antieuskaldunei, horrela B edo D ereduko lineak zabaltzea oztopatzen baitute. Eta PSOeri herri hau zatitu eta zati bat espanyola mantendu ahal izateko.

- PNVri, erreziklaje sistema kaxkar batez mozorrozturik bere irakaskuntza eredia, zeharka, ederki inposatuz doalako. Irakaskuntza pribatua bultzatu (bertakoen erreziklajea ordainduz eta estatuan baino subentzio handiagoak emanaz) euskarazko demanda ikastetxe hirietara eta ikastoletarantz bideratuz, ikastolak ere pribatu egoeran mantenduz.

Nola konpondu arazo larri hau? Langileok, irakasle edo ez, sakonki aztertu eta erantzun zehatz eta gogorrak eman beharrezko arazoa dugu hau, gu baikara, abertzaleok, irakaslego euskaldun hori, lortu nahi dugun eskola motarako, beharrezkoen jotzen dugunak.

Bi irtenbide besterik ez daude irakaslego euskalduntzeko:

- daudenak euskalduntzea.
- irakasle berri euskaldunak sartuz joatea.

Gogor exijitu beharko diegu administrazioei nahi duten guztientzat erreziklaje arin eta sendo bat egiteko aukera, irakasleei norberaren ahalegin gogorra exijituaz batera.

Bestalde, nahi ez dutenei, irakaskuntza uzteko aukerak eskeini beharko litzaieke. Herri honen beharrak bere "eskubide" pertsonalen gainetik baitaude. Eta guk, joan daitezen, bultzatzea dugu.

Azkenik euskaldunok, euskara eta euskaraz irakusteko gaitasun egokia lortzeko, beharrezkoak ditugun ikastaroak egiteko laguntza ere exijitu behar dugu.

2. GURE EKINBIDEAK ETA JARRERAK

Gure hizkuntza nazionalak egun jasatzen duen zapalkuntza eta baztertze egoera honetan, baldintza bereziak eskeintzea eta erdararen parean positiboki diskriminatzea beharrezkoa da, Euskal Herri euskalduna lortu ahal izateko.

2.1. Administrazio publikoei:

- Eskola eta ikastolen artean, irakaskuntza euskalduna zihurtatuko duen, Sare Publiko Bakora lortzeko behar den borondate politiko eta ahalegina.
- Euskal Herrian edozein umek (euskaldun nahiz erdaldun) euskaraz hezitzeko duen eskubidea errekonozitzea eta garantizatzea.
- Irakaskuntza euskalduntzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabide ekonomiko, laguntza material eta pertsonalaz egoki hornitzea.
- Hezkuntzarekin zer ikusia duten kargu, inspektore e.a. euskaldun izatea.

- Eskolan eginiko lanak, kalean alferrik gal daitezke. Beraz, herri erakundeekin batera, euskararen erabilpen eta balorazio sozial zabal bat lortzeko kanpainak.

2.2. Eskolan

- Gehienetan, gaur egun dagoen giro eta eredu nahasteekin, zail izango du euskarak behar duen bultzada lortzea. Horregatik euskal eskolak lortzen saiatuko gara. Hau da eredu euskaldunak elkartu, eta irakaslego eta langile euskaldunak dituzten eskolak.
- Motibazioak duen garrantzia ukazina da. Horregatik eskola bakoitzean, (ikastoletan ere, haien frakaso nagusia umeek erderaz egitea baita) guraso eta irakasle euskalzaleak elkartuz, motibazio kanpainak eratu behar dira.
- Ahalik eta guraso gehien euskara ikastera bultzatzeko.
- Ikasi nahi edo ezin dutenengan jarrera positibo bat lortzeko.
- Euskararen aldeko borroka luze eta sarritan mingots honetan, ahalik eta irakasle gehien gureganatzeko.
- Gurasoak eskolako martxan inplikatu.
- Jolas orduetan, umeentzat euskal giroa lortuz, gelara ez mugateko.
- Euskal ohiturak, dantzak, festak eta egunak eskolan antolatuz eta espatuz.
- Umeak euskal barnetegi edo antzekoetara eramánaz.
- Oraindik bizimodua euskaraz egiten den eskualdeak bisitatu.
- Irakasleen artean beti euskaraz eginez.
-

- Eskolak euskaldundu: Txartel, izen, komunikatu, harreman ofizial, e.a. euskaraz egin behar ditugu, oraindik eskola guztiz euskalduna lortu ez badugu ere. Honek, zuzendari guztiak euskaldunak izatea exijitzen du.

Euskalduntzea ez dugu lortuko eskola eta ikastoletan, euskara ikasteaz gain, haurrek "bere hizkuntza" denaren kontzientzia hartzen ez duten bitartean. Hori da gure apusturik gogorrena.

2.3. Eskola eta ingurunea.

Eskolak hauzoan edo herrian ere sortu behar du eragina, eskolatik kanpora irtenda, kalean euskaraz eginez, herri erakundeekin harremanetan jarriz eta ekintza osagarriak antolatuz kanpoan eta barruan.

2.4. Irakaslegoa

- Irakaslegoa izango da irakaskuntza euskalduntzeko faktore eragilerik nagusienetakoa. Arinago aipatu dugu irakaslego guztiz euskalduntzeko eta euskaldunak erreziklatzeko beharra. Hara hemen ekinbide batzuk:
- Gaurdanik irakaskuntzan sartzen den irakasle berri oro, euskalduna izango da.
- Herri honetan hezkuntzan lan egin behar dutenak, bere ikasketak amaitzerakoan euskaldunak izango dira. Beraz, Magisterio Eskola eta abarretan, programak, herri honen beharrei egokitzea exijitzen dugu.
- Lehendik lanean daudenei, euskara menperatu arte ez zaio plaza definitiborik emango.
- Administrazioari erreziklaje arin eta sendo bat exijituzetik at, neurri horietatik kanpo heratu diren irakasle guztiak, euskara ikasten hasiko dira bere kontura eta gu lan hori erretzen saiatuko gara.
- Euskaldunok pedagogia zein euskara maila hobetzeko prestakuntzari lehentasuna emango diogu.
- Ageriko zein enmaskaratu, antieuskaldun guztiak, herri honen etsai eta kolonizatzailetzat hartuko ditugu, eta beraien aurkako borroka gogorra zuzendu, joan daitezela!
- Ikastoletako eta eskoletako langileen arteko harremanak sendotu eta elkarren arteko mesfidantzak gaintituz, koordinazio batetara iritsi. Horrela aurreratu ahal izango dugu Euskal Eskola Publiko Bakarreruntz. Kontutan har burgesia eta PSOE direla gure arteko konpetentzia eta borroka sortu nahi dutenak, bere eskola mota aurrera ateratzeko lagungarri bezala.
- Gaurko egoera euskararen borrokak irakasle alai eta dinamikoak exijitzen ditu. Langile abertzaleon ardura da dinamika hori lortzen saiatzea. Gure lan onak ere erakarriko ditu gurasoak euskal eruedetara.
- Administrazioarekiko harremanak, inspektore zein delegazio e.a. euskara hutsez zuzenduko ditugu.
- Klaustro, batzar eta antzekoetan euskarari lehentasuna emango diogu. Bestela erdararen alde ari gara.
- Euskarazko irakaskuntzaren irakasleen ratioak gehitzea exijituko dugu, behar diren material eta lanak era egokian burutu ahal izateko (gezurra ba dirudi ere, euskarazko irakaskuntza da merkeena ez baitigute "idoneorik" ipintzen).
- Ezin ditugu euskarari dagozkion hainbat erabaki, klaustro antieuskaldunen eskuetan utzi eta "gehiengoaren" eritzi "demokratikoa" onartu. Guk erabakitze bideak asmatu eta inposatu beharrean aurkitzen gara.

2.5. Ereduak: Lehen aipatu ditugu ardatz nagusienak. Hara hemen proposamen zehatzak, helburu horietara hurbilduz joateko:

- Propaganda kanpainak eratu B eta D eruedetan matrikula daitezen (eskoletan zein ikastoletan publiko izan nahi badu).
- Umeak, 3 urtekin matrikulatu gutxienez.
- Herrietan administrazio zein udaletxei, ume erdaldunak euskalduntzeko haurtzaindegiak sortzea exijitu.
- Ume kopuruak jeitsi: 23 D ereduko euskaldunentzat, 18-20 B edo D egin nahi duten erdaldunentzat.
- B ereduko irakasle guztiak euskaldun izatea.
- Eredu berdina dauzkaten eskola eta irakasleen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.
- Matrikulaketak eredu arabera egitean, B-D eskari berri guztiei linea egokiak eskeintzea.
- Material eta baliabide ekonomiko nahiko.
- Ereduak pikutara botatzeko ahaleginak egitea: eredu bat eta euskaldunduko duena.

3. IRAKASLEAREN EGOERA

IKASTOLETAKO LANGILEGOAREN EGOERA GURE JARRERA

Lehen urratsak

Herri honek Frankismoak ukatzen zion irakaskuntza euskaldun eta herritarra sortzen eta bultzatzen hasi zenean, asmo eta lan asko elkartzu zituen helburu horren inguruan. Etsai berdinak, egoera larriak batera aritzera bultzatzen zituen irakasle eta gurasoak.

- Ikastola izakera legal pribatuak berarekin ekarri zuen ideologikoki ere pribatu sentitzen hastea. Ordaindu beharrak patroi bihurtzen du.
- Kutsu pribatua areagotzen zihoan neurrian guraso eta irakasleen arteko borrokak sortarezi eta bultzatu egiten zituen. Despido ideologikoak suertatu ziren hainbat lekutan.
- Ikastola guztietako egoera ez zen berdina, baina dinamika bat sortuz joan zen eta azkenik Ikastolen Federazioak eta Irakasleen Elkartek sortu ziren, guraso eta langileen erakunde bezala.
- Langileen erakundetza nagusia beraz, sindikatoetatik atsegin zen. Elkarrekin erreibindikapen globalak planteatzen zituzten, pedagogikoak, laboralak, e.a. Gerora lan pedagogikoetara mugatuz joan ziren.

1980 tik - gaur egunera

- 1980 urtearen inguruan, 1982-arte, suertatu ziren langileen azken mobilizapen unitario eta zabalak. Lehenengo konbenioa egitearen inguruan Euskal Eskola Publikoaren erreibindikapeña ardatz nagusia zelarik.
- 1981 garren urtetik aurrera ez da egon nafartar langileekin harreman koordinaturik.
- 1981 eko udan sinatu zuen ELA-STVek lehenengo konbenio fantasma, ia inoren ordezkari ez zuen arren.
- 1982 ko udazkenean egin ziren hauteskunde sindikalak, langilegoaren gehiengo sindikatuetatik at geratu zelarik, ELA-STVek lortu zuen hautatuen artean gehiengo. Honekin amaitu ziren ia, asanbladen indar eta eragina eta iritsi zen langileen desmobilizapen osoa. STEE-EILAS ek ez zuen lortu beste langileen borondatea bereganatzea.
- 1982 tik aurrera, EIKERen aurka eta Euskal Eskola Publikoaren aldekoak izan dira, egon diren mobilizapen eta manifestapen bakarrak. Guraso eta irakasleek bultzatuak. Ikastola gutxitan izan zuten benetako bultzada.
- 1982 tik aurrera ere, ELAk urtero sinatu ditu Baskongadetarako paktoak, balio legalik gabeko konbenioak. Gasteizko Gobernuaren diru txantajeaz langileei betebarazi dizkigutenak eta langileok erabili ezin izan ditugunak biabilitate planek deusezten zutelako edo nahi zuten ikastolek, bere balio eza argudiatuz saltatzen zituztelako (kontratazio, traslado e.a. eta ihaz titulo gabeak jasan behar izan zituzten zapalketak lekuko).
- Azken urteetan ikastoletako errekonbertsioa egiten doaz baina ez euskarazko irakaskuntzaren beharren arabera modulo ekonomikoen arabera baizik.
- Nafarroan ez da pakto-konbeniorik egin. Ikastolek ikastetxe pribatuen subentzioa jasotzen dute. Ikastola txikiak eta bertako langileak oso egoera larrian aurkitzen dira.

Egungo egoera

- Azken urteetan zerbait argi geratu bada, euskaldunok nahi dugun eskola mota egiteko egungo marko politikoaren balio ezarekin batera, zera izan da: PNV, Gasteiztik, hezkuntza pribatuaren aldeko kontzeptzio burgesa ezartzen joan dela Baskongadetan eta ikastoletan bereziki. Horretarako Ikastolen Federazioen oneritza batzuetan eta aurkako jarrera eza besteetan lagungarri izan dituelarik. ELA-STV ren morrontza leiala ere oso lagungarri gertatu zaio.
- Nafarroan PSOEk egin ditu ikastolak suntsitzeko hainbat ahalegin eta orain eman die "ultimatum"-a.
- 1986 ko irailetik aurrera ikastolak, dekretoz, ikastetxe pribatu kontzertatuen muga barruan murgildurik aurkituko dira Baskongadetan eta Nafarroan. (Ikastolak ez daude maila berdinean bi komunitateetan, egoera politikoa eta transferentziak ere ezberdinak baitira).
- Publikotasunaren kondiziorik gabe dohaintasuna eskeintzea, Baskongadetan, eta gutxiengo lau urtetako epe batetan, guttiz arduragarria da, gure herriak eraikitako eskola euskaldun eta herritarra, esku gutxi batzuren kontrol pribatueta- ra pasatzen baita, abade, monja, opus eta abarrekin parekatuz, bere hasierako helburuetatik aldentuz.
- Ikastoletako langileok, Gobernu, Federazio eta ELA-STV kin batera, ba dugu gaurko egoerara iristearen ardura garrantzitsu bat: gehienok egoera aldatzeko ahaleginik egin gabe pasibo batetan "zain" geratzea.

Hauek dira, gure ustez, patxada ederrean murgildu gaituzten arrazoiak (salbuespenak salbu).

- Lan nahiko zihurra orain arte.
 - Indibidualismoaren hedatzea.
 - Interes preferentea soldata izatea (Nafarroan ezik, transferituen parekoa).
 - Politikoki definitzeko bildurra eta unitarismo faltsu batetan galtzea.
 - Langileriarekin izaniko etendurak eta izan dugun erakundetza eskasak gudan sortu duen halako etsipen edo ezintasun kolektibo bat.
 - Ikastetxe pribatu kontzertatu bihurtzearen ondorioz:
 - Ikastola handi pribatuzaleei egiten zaie mesederik handiena.
 - Ikastola txikiak, arrisku gehien dutenak, desagertu egingo dira (Nafarroa bakarrik, 17 fusionatuko dira eta 13 desagertu, gurasoek osorik kostatzen ez badituzte). Baskongadetan, errekonbertsioa egin gabe dagoen lekutan, berdin gertatuko da.
 - Irakaskuntza transferituko euskaltzaleekin borroka eta kompetenzi zuzenera garamatza.
 - Pribatuek garenaz, soberan dauden irakasleak kalera joango dira.
- (Ikus zehastasan gehiago kontzertoei buruzko lanean).

IKASTETXE PUBLIKO EDO PRIBATUETAKO IRAKASKUNTZA LANGILEEN EGOERAREN ZENBAIT ASPEKTU

Vascongadetan ikastetxe transferituetak langilegoa eta Nafarroan transferitu gabekoetan ere bai, 18.000 langile baino gehiago gehiago suposatzen du —unibertsitatea kontutan izan gabe—. Borroka eta beren eskubideak erreindikatzeo kapazitatea piskanaka gutxituz joan da, horrek bai administrazio zentralari eta bai euskal gobernuari beren plan eta proiektuak oraindik gogorrigo inposatzen laguntzen dielarik. Arazo zenbaitek erakarri dute egoera hau:

- Akzio sindikalaren eskubiderik eza (hauteskunde sindikalak eta negoziaketa kolektiboa), honek borroka estatuko parlamentuaren erabakien aurka joatea erakarri duelarik, desgaste borroka luzeak erakarri, hauetarik asko langileak kontutan hartu gabe eginiko paktuen bidez bukatuak.
- Duela 7-8 urte erreindikazioek irakasleen elkartasuna, lan kontratua,... alde ziren bitartean, erreforma langileak funtzionario bihurtuz joan da eta oposizioak gainditu ez dituztenak zuzenean langabeziara joan edo joango dira. Lanpostuaren seguritate ezaren aurrean, funtzionariak pribilegiatuztat du bere burua...
- Egiten ari diren erreformen konplexutasunaren aurrean, funtzio publikoaren estatutua, irakaslegoaren estatutua, hauetariko asko borradore hutsak direlarik, sartzen den ministroak berri batez aldatuz eta kontsideratzen duelarik ezer ere ez edo oso gutxi alda dezakela, estatu mailan duen bere leku edo borroka erabat deseginik geratuko bait dira.

2.- EUSKAL GOBERNUAREKIKO ERLAZIOAK

Arazo garrantzitsuak Madrilan eramaten diren egoera honetan, Euskal Gobernuak, kontradizioetan sartu gabe eta Madril definitu arte ezer esan gabe... ezezkoa ematen dio zezena adarretatik eusteari eta kontsumitutako ekintzadun politika bat eramaten du:

BIRMOLDAKETA. Mendieta Jauna, kontsejeroorde ohiak esan zuen —6.000 lanpostu sobratzen dira—. Praktikak erakusten du ez zirela hitz hutsak, urterik urte kurtsio haserak langabetu berriak suposatzen ditu.

EUSKALDUNTZEA, langileen euskalduntzea zailtzen duten irakasle berriak eta nahi dutenei trasladio erreztu-oztopoekin bat —legeak—, badago nahi dutenak euskalduntzeko interes falta bat eta egoerak leher egin aurretik, irteerarik hobere-na FETE-UGETEK oso interesgarria deritza-B ereduari dagokion Uztailaren 9ko dekretoa izan da.

NEGOZIAZIORAKO ESKUBIDEA. azken urteotan departamentuaren politika ez informatzea eta ez negoziatzea izan bada, badirudi orain ELAren aholkuei esker negoziaketak egongo direla, baina bakarrik eta eskusiboki aurretik gobernu-sindikatuak paktatu dutenaren gain, inkostuzionala ez den bitartean.

3.- HAUTESKUNDE SINDIKALAK

Badirudi Gobernu Zentralaren Dekretu Realak funtzionarietzat hauteskunde sindikalak emango dituela, Abendurako ziurrenik.

Dekretu bidez Euskal Gobernuak 1984ean irakasleak hauteskunde sindikalak izan zitzaizten ahalegindu zenean estatu lege bat ez zegoelako posible ez bazen, orain PSOE eta UGTren interesen aurrean desarroilatu ahal izango dira, baina Dekretu Realaren bidez.

Ziurrenik dekretoa espainol parlamentuan tramitean zegoenaren berdina izango da eta, beraz, zera erakarriko du:

- Irakasleen errepresentatibitatea oso murriztua geratzen da funtzionarien aurrean.
- Aparatu sindikal handienetatik negoziazio boterea hartu.
- Hezketa maila guztietako pertsonal junta bakar bat eratzea, gutxiago diren kolektiboak murriztu ondoren hauek errepresentaziorik gabe utziz.

**4. EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN
PROIEKTUA ORAINGO
LEGEETATIK BEGIRATUZ**

EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN PROIEKTUA, ORAINGO LEGEETATIK

BEGIRATUZ

Estatu mailan PSOE sortzen ari den hezketa ereduak begiratzuz, Euskadirako hezketa eredu bat sortzeko posibilitatea gutxituz doa. Espainol parlamentuak lege bat onartzen duen bakoitzean hezketa autonomia oraindik gehiago, ahal bada, mugatzen du.

Beste lanetan esan denez, hau ez da inolako berrikuntza edo harridurarik Madrileko Gobernuan nor dagoen arazorik ez dela pentsatzen dugunontzat, baizik eta guzti hau konstituzioan ikusten den estatuarekiko ikuspuntu unitarista eta zentralista baten ondorio dela.

Ez dago ilusio faltsurik. Oraingo legeek ez dute posible egingo Euskal Eskola publikoa. Hau ez da oztopo gure eguneroko lanetik euskal herri langilearen beharrei erantzun bat emateko, bai legeak bete gabe, denuntzia bidez, nolabaiteko hobekuntzak lortuz, azken finean inposaturiko sistemaren kontradizioak azalduz.

1.- LODE

"Ley ORGANICA del Derecho a la Educación" delakoa, estatua (PSOE) sortzen ari den hezketa ereduaren ardatza da. Lege honen edukiak, bere "orgánico" izaerarengatik, bere geroko legislatibo desarroiloa zuzenduko du, bai estatuaren aldetik eta bai komunitate autonomoen aldetik, bere desarrollorako kompetentziekin.

1.1. Lege ZENTRALISTA bat da. Hezketa eredu propio bat sortzea posible egiten duten oinarriak estatuaren esku daude, komunitate autonomoei etatuak desarrollatzen dituen antzeko legeak desarrollatzeko kompetentzia emanez, nolabaiteko izaera folklorikoz. LODEn estatuaren kompetentzia dira:

- Ikastetxe batek bete behar dituen neurri minimoak (ez dago desberdintasunik, linguistikoki arazorik...).
- Kontzertaturiko ikastetxeentzako subentzio ekonomikoaren zenbatekoa.
- Hezketa mailan Goi Inspektzio edo Supergobernadore batzuren izendatzea, bere interesak gordetzek Madrileko Gobernuak behatze izendatuak.

LODEn hain ondo definituak daude aspektu batzuk, komunitate autonomo batek bertan kompetentziak baditu ere, ondorengo aldaketa hauek bakarrik egitea duela posible:

- Ikastetxe publiko eta kontzertatuetan gobernu organoak.
- Ikasle onarpen kriterioa.

1.2. ESKUINDAR lege bat da, zeren eta hizkuntza populatzerok bat erabiltzetik at:

- Ikastetxeratzet sare bakoitza goijartzen du, ikastetxe pribatu-kontzertatuei laguntza handiagoz subentzionatuz, eskuinteko edo zentralista izena hartzen duten aurreko gobernuak eginikoa gaindituz.
- Kontrol sistemak eta zentru kontzertatuei jarritako baldintzak enpresa-gizonaren botereak murriztuak gertatzen direlako, enpresagizona ez indibiduala, baizik eta benetako botere faktikoak (eleiza batez ere) direla ahaztu gabe.
- Eskuindarra da lexisladorearen helburua saretariko bat kontrolatzea delako —estatala—, horretarako sare hau burokratizatzeari atxikiz, ikastetxe komunitateari sortzea eta funtzionamendu autonomo bat kentzen dion ez oinarritudun, baizik eta erabat REGLAMENTARISTA den lege bat sortuz.
- Partehartzea, lege honetan aipatuenetariko aspektu bat, benetako demagogia populatxero bat da, egiten duena kolektibo bati kontrol apurtxo bat ematea baita da —eskola kontseiluak— oinarriarekiko inolako zerikusirik gabe, bere hautaketan baino gehiago eta ikasleen ordezkaritza erabat paternalista eta gezurtia delarik.
- Haurtzaindegi eta eskolaurrearen dohaintasun ezak ere ez du aurrerapide bat suposatzen lehenagoko legediarekin.

1.3. Ikuspuntu honetatik da hain zuzen, Euskadin berezko hezketa eredu bat sortzean zuzenki zerikusia izango duena, harritu ez gaitzakeena:

- Euskal Gobernuak LODE desarrollatzeko ateratzen dituen dekreturik gehienak tribunal konstituzionaletik pasatzea. Nafar gobernuak ez du honelako arazorik estatu legedia aplikatzen duelako.
- PNVk duen PSOErekiko pakto politika, galeriarekiko gestu politika batek estalia.

2.- LODEren BILAKABIDEA

Euskadin LODEk izan duen desarroilo legislatiboa estatu-nazio unitarista batek mugatua egongo da. —PSOE kasu honetan— eta bestalde PNVk Vascongadetan egiten dituen ahaleginak —Nafarroan estatal lexislazioa ezartzen baita— bere printzipio ideologiko-eruditiboetatik desberdina den hezketa eredu bat hartzeko.

Kontextu honetan eta euskal langilegoak sortzen dizkien kontradikzioak kontutan izanik, bi aldeek onartzen duten boterea zatitzea, herrian bi komunitateren sentimendua bultzatuz.

2.1. Zentru Publikoetako Gobernu Organuak

Estatuak eta Euskal gobernuak eginiko legeen arteko desberdintasuna oso txikia da, batez ere aspektu semantikoetan sakonduz.

Bai batak eta bai bestek:

- Ez diote erantzunik ematen partehartze nibelak bultzatzeko (LODEn kritikaturiko aspektua).
- LODEren reglamentarismoa hareagotzen dute, ikastetxearen autonomia ezabatuz.
- Organu kolegiatu eta unipersonalen kompetentzia erabat gestiozkoa da.
- Organu unipersonalen bidez klaustroaren desberdin den kasta bat bultzatzen da.
- Herriko indar bizientzat lekurik ez dago.
- Ikasleak dekorazio objektu dira.

Legedi hau praktikan jartzean inoiz ez du suposatu zentruen gestio demokratikoetan aldaketa kualitatiborik. Zentru publikoen gestioan zeuden partehartze arazoak konpondu ez dituen erabat kanpotikako erreforma bat izan da. Bai:

- Zentru batzuzentzat legedi hau praktikan jartzea lorturiko partehartzerako oztopo bat zelako.
- Beste kasu batzutan, partehartze nibelik ez egotean, lehenengo izuaren ondoren zentru bateko zuzendaritzak dituen euskarriek hareago joatea eragotziko duelako.

Edonola, bere osotasunean legearekiko ezetza eta kritikatik at, eskolar egoera bakoitzean harturiko erabakiak nahiko dialektikoa izan behar du, egoera asko eta desberdinen funtzioan. Baina beti ere partehartze eta autonomia mailak handitzeko bidetik eta zuzenbide honetan doazen beste instantziak bultzatuz: Herri, bailara edo eskualdeko Kontseilu Eskolarrak.

2.2. Zentru Publiko eta Kontzertatuetakoko ikasle Onartze Legea

Gobernuaren organu legean desberdintasun handirik ez bazegoen ere, lege honek bi eratarata desarroilatzera behartu du PNV: eredu linguistiko asko egotea eta zentru kontzertatuak estatus klasista baten menpe mantendu nahi izateagatik. 1986-87 ikasturtean aurrera eraman behar zen, baina inkonstituzionaltasun posible batek atzeratu egin du.

Bai lege estatalean eta bai Vascongadasekoetan ere aspekturik kritikagarriena eta LODEk dioena besterik ez dena lanpostu eskolarretarako ofertaren orduan kontsideratzea da, bai publikoetan eta bai kontzertatuetan.

Vascongadasetako aspektu seinagarritzat:

- "Zentru bakoitzari onarturiko eredu linguistikoaren zatiketarekiko errespetoa" bi eratarata uler daitekeela: ez dagoen zentru batetan ikasle batek ezin duela A ereduarekin, baina bai alderantziz ere eta hau eskola transferituen kasua da, OHOn %60 bat baino gehiago A ereduarekin daudelarik, B edo D ereduarekin eskatzen duen ikasle bat publiko ofertatik zentru pribatu-kontzertatu batetara bultzatuz.
- Zentru kontzertatu batetara sartzeko kriterioa ez dadila errenta txikiago baten menpe egon, hiru errenta maila ezarri, maila bakoitzean plaza berdinak egongo liritekeelarik.

Nafarroan euskararen lege baten ezak eta onarpenen normatiba estatala ezartzeak, euskaraz irakasten den oraindik transferitu gabeko zentru estatalentzat defentsagabetza handiago bat suposatzen du.

2.3. Zentru Pribatuen Kontzertu Legea

LODE azaltzeak, lehen esan bezala, zentru pribatuak diru publikoz mantentzearen legeztatzea suposatu du. PNVk bultzaturiko kontzertu legeak tribunal konstituzionalean bukatu bada, ez da izan bere aspektu garrantzitsuenetan LODEren aurka joateagatik. baizik eta zentru pribatuak subentzionatzeko diru publiko gehiago nahi izateagatik eta B eta D ereduentzat subentzio handiagoak sortzeagatik.

Dena den: dekreto honen bidez:

- Ikastola publikotasunaren beharra behin eta berriz aldarrikatu bada ere. Eskola pribatuentzat egokituriko dekreto berberan sartu dituzte.
- Guzti hau ikastolei azterketa egokia egiteko denborariz gabe, aukera bakarra nahi ta nahiez betetzera behartu zaie, ikasturte berrirako diru arazoa konponduta edukitzearen truke.
- Langilegoari inongo kontsultarik egin gabe esku pribatutan jarri gaituzte genituen eskubide apurrak murriztuaz.
- Ikastolen Federazioak kontsultatuak izan dira eta beren aldetik oniritzia eman diote dekretuari, ikastolei kontsultatu baino lehen: bi eranskintxo txertatuaz haserako testuari betetzat eman duten ikastolen nahian.

Egoera honen aurrean:

- Kontzertu hau lau urtetarako sinatzean, ikastolak behin betirako pribatu mailara bultzatu nahi direla argi ikusten da.
- Honetan, Federazioek izan duten jarrera salatu behar dugu. Alde batetik, Gasteizko Parlamentuan publiko izateko aukera bat (oso kazkarra, egia da) proposatu zenean, federazioak, buru belarri saiatu ziren haren aurka; orain aldiz, ez dute inongo lotsarik ikastetxe pribatuekin batera dekretu lotsagarri hau onartzeko, publiko izan nahi dutela esan arren, horretan inongo ahaleginik egin gabe.
- Herri mugimenduak sorturiko eskolak gutxi batzuen eskuetan jartzen dira, horiek erabaki guztiak hartzen dituztelarik.
- Langileon arteko kompetentzia areagotzen du. Beste eskoletan euskalduntze lanetan iharduten dutenekin konponezina sortuaz, matrikulaketak, elkarlanak e.a. direla medio.
- Publikotasunaren ondorio izan behar zukeen dohaintasuna lortzen da haren aipamenik gabe.
- Tribunal konstituzionalean lege hau gelditzeak galduriko denbora berreskuratzea bultzatu behar gaitu, PSOEk lege hau tribunal konstituzionalera eramanez bere politikaren atzean gordetzen duena denuntziatuz eta Federazioak horrela nahi duten ikastolak publikotasuna lortzeko jarrera borrokatzailegoa hartzera bultzatzeko.